



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Ordenanza Fiscal nº 4 Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras

### 4. Ordenantza Fiskala Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga

HOJA 20. ORRIA

#### I. XEDAPEN OROKORRA

##### 1. ARTIKULUA

*Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauan eta ekainaren 30eko 10/1989 Foru Arauan xedatutakoarekin bat etorritz, Ermuko udalerrian Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ezarri da eta ordainarazi egingo da zerga ordenantza honen arabera.*

#### II. IZAERA ETA ZERGA-EGITATEA

##### 2. ARTIKULUA

*Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga zeharkako zerga da. Udalaren obra- edo hirigintza-lizentzia behar duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea da zerga-egitate, lizentzia eskuratuta edo lizentziarik gabe egiten den kontuan hartu gabe, edo adierazpen arduratsua nahiz aurretiko komunikazioa aurkeztu behar direnean, dokumentu horiek egitea udal honi badagokio betiere.*

##### 3. ARTIKULUA

*Udal honen jabariko higiezinetan egiten diren eraikuntzak, obrak eta instalazioak ez daude zergapean, baldin eta obren jabea Udala bada.*

#### III. SUBJEKTU PASIBOAK

##### 4. ARTIKULUA

1. Ondorengoak ditugu, zergadun moduan, zerga honen subjektu pasiboak: Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. artikuluan aipatutako pertsona juridiko edo erakundeak, eraikuntza, instalazio edo obren jabe direnak, obra egingo den higiezinaren jabe izan

#### I. DISPOSICIÓN GENERAL

##### ARTÍCULO 1

De conformidad con lo dispuesto en la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Bizkaia, y en la Norma Foral 10/1989, de 30 de junio, se establece y exige en el municipio de Ermua el Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, con arreglo a la presente Ordenanza Fiscal.

#### II. NATURALEZA Y HECHO IMPONIBLE

##### ARTÍCULO 2

El Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras es un tributo indirecto, cuyo hecho imponible está constituido por la realización de cualquier construcción, instalación u obra para la que se exija la correspondiente licencia de obras o urbanística, se haya obtenido o no dicha licencia, o para la que se exija presentación de declaración responsable o comunicación previa, siempre que su expedición corresponda a este Ayuntamiento.

##### ARTÍCULO 3

No estarán sujetas a este impuesto las construcciones, obras o instalaciones ejecutadas sobre inmuebles cuya titularidad dominical corresponda a este Ayuntamiento, siempre que ostente la condición de dueño de las obras.

#### III. SUJETOS PASIVOS

##### ARTÍCULO 4

1. Son sujetos pasivos de este impuesto, a título de contribuyente, las personas físicas o jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 34 de la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico, que sean dueños de la construcción, instalación u obra, sean o no

zein ez.

2. *Aurreko paragrafoaren ondoreetarako, eraikuntza, instalazio edo obraren jabea haren gastuak edo kostuak jasaten dituena da.*

3. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, haren ordeko subjektu pasibo izango dira eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko lizentzia eskatzen dutenka edo adierazpen arduratsuak edo aurre-komunikazioak aurkezten dituztenak edo adierazitako eraikuntza, instalazioa edo obra hura egingo dutenak.

4. *Ordezko subjektu pasiboak ordaindutako zerga-kuotaren zenbatekoa eskatu ahal izango dio zergadunari.*

## **5. ARTIKULUA**

1. *Udal administrazioak zergadunaren ordezkari zergadunaren izena eta helbidea jakinarazteko exijitu ahal izango dio.*

## **IV. ZERGA OINARRIA**

### **6. ARTIKULUA**

1. *Zerga-oinarria eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren benetako kostua izango da; benetako kostua hura burutzeko kostua izango da.*

*Ez dira sartuko zerga-oinarrian ez Balio Erantsiaren gaineko Zerga, ez araubide bereziko antzeko gainerako zergak, ez tasak, ez prezio publikoak, ez eraikuntza, instalazio edo obrarekin zerikusia duten ondarearen gaineko gainerako toki prestazioak, ez profesionalen ogibidesariak, ez kontratistaren enpresa-mozkina, ez burutzapen materialaz kanpoko gainerako*

propietarios del inmueble sobre el que se realice aquella.

2. A los efectos previsto en el párrafo anterior, tendrá la consideración de dueño de la construcción, instalación u obra quien soporte los gastos o el coste que comporte su realización.

3. En el supuesto de que la construcción, instalación u obra no sea realizada por el sujeto pasivo contribuyente tendrán la consideración de sujetos pasivos sustitutos del mismo quienes soliciten las correspondientes licencias o presenten las correspondientes declaraciones responsables o comunicaciones previas o quienes realicen las construcciones, instalaciones u obras.

4. El sustituto podrá exigir del contribuyente el importe de la cuota tributaria satisfecha.

## **ARTÍCULO 5**

1. La administración municipal podrá exigir a la persona sustituta de la persona contribuyente la identidad y dirección de quien ostente dicha condición.

## **IV. BASE IMPONIBLE**

### **ARTÍCULO 6**

1. La base imponible del impuesto está constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra y se entiende por tal, a estos efectos, el coste de ejecución material de aquella.

No forman parte de la base imponible el Impuesto sobre el Valor Añadido y demás impuestos análogos propios de regímenes especiales, las tasas, precios públicos y demás prestaciones patrimoniales de carácter público local relacionadas, en su caso, con la construcción, instalación u obra, ni tampoco los honorarios de profesionales, el beneficio industrial del contratista ni cualquier otro



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Ordenanza Fiscal nº 4 Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras

### 4. Ordenantza Fiskala Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga

kontzeptu guztiak.

2. Zerga oinarria, Udal lizentziarik gabeko eraikuntza, instalazio edo obren kasuetan, Udal Administrazioak ezarritakoa izango da.

#### V. ZERGA KUOTA

#### 7. ARTIKULUA

Zerga honen kuota kalkulatzeko, zerga oinarriari, hau da, eraikuntza, instalazio edo obraren benetako kostuari, karga-tasa hauek aplikatuko zaizkio:

a) Oro har, %5eko karga-tasa aplikatuko da.

b) Karga-tasa %3ean utziko da eraikinaren fatxada eta teilatuari dagozkion energia-eraginkortasuna hobetzeko eraberrikuntza egiteko denean

Energia-eraginkortasunaren hobekuntza txosten tekniko bitartez egiaztatu beharko da espedientean. Gainera, aipatutako energia-hobekuntza hori kategoría batekoa (letra batekoa) gutxienez izan beharko litzake earikinaren energia-kalifikazioan.

#### VI. SORTZAPENA

#### 8. ARTIKULUA

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazio edo obra hasterakoan gertatuko da, beharrezko lizentzia jaso ez bada ere.

#### VII. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

#### 9. ARTIKULUA

HOJA 21. ORRIA

concepto que no integre, estrictamente, el coste de ejecución material.

2. En el caso de construcciones, instalaciones y obras sin licencia municipal, la base imponible se fijará por la Administración Municipal

#### V. CUOTA TRIBUTARIA

#### ARTÍCULO 7

La cuota de este impuesto será el resultado de aplicar a la base imponible constituida por el coste real y efectivo de la construcción, instalación u obra, los siguientes tipos de gravamen:

a) Con carácter general, se les aplicará el tipo de gravamen del 5%.

b) El tipo de gravamen queda fijado en el 3% cuando se trate de reforma que conlleve la mejora de eficiencia energética que afecten a la fachada y cubierta

La mejora de la eficiencia energética debería ser acreditada en el expediente mediante el correspondiente informe técnico. Además dicha mejora energética debería ser de al menos una categoría (letra) en la etiqueta de calificación energética del edificio.

#### VI. DEVENGO

#### ARTÍCULO 8

El impuesto se devengará en el momento de iniciarse la construcción, instalación u obra, aún cuando no se haya obtenido la correspondiente licencia.

#### VII. EXENCIONES Y BONIFICACIONES

#### ARTÍCULO 9

1. *Eraikuntza Instalazio eta Obren gaineko zerga ez dute ordaindu beharrik izango Estatua, autonomia erkidegoen edo toki izakien jabetzako era guztietako eraikuntza, instalazio edo obrek, baldin eta horri lotuta badaude, zuzenean errepide, trenbide, portu, aireportu, obra hidrauliko, biztanleguneen saneamendu eta horien hondakin uren saneamendurako izango badira; kudeaketa erakunde autonomiadunek egindakoak baldin badira ere eta inbertsio berriko obrak zein artapenekoak izan.*

2. *7. artikuluan adierazitako karga tasaren emaitzako kuotei ondoren agertzen diren hobariak aplikatuko zaizkie:*

a) *Gizarte etxebizitzan eta babes ofizialeko etxebizitzan sustapenak %50eko hoberia jasoko du.*

b) *%95eko hoberia izango dute inguruabar sozial, kulturalak, historiko-artistiko edo enplegua sustatzekoak tartean direla, Udalbatzarrak interes bereziko edo udal erabilerako eraikin, instalazio eta obra deklaratuak.*

*Hobariaren eskaria aldeak eskatu beharko du, Udalbatzarrak interes berezi edo udal erabilerako adierazpena bidezkotzen duten inguruabarrak eskarian jasoz. Bonifikazioa Udalbatzarrak aipaturiko adierazpena egiten duenean aplikatuko da.*

3. *Zerga-kuotaren %95eko hoberia aplikatu zaie eguzkitik eratorritako aprobetxamendu termikoa edo elektrikoa egiteko sistemak barnertzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obrei.*

*Hoberia jasotzeko, beroa sortzen duten instalazioek administrazio eskudunen homologazioa duten kolektoreak eduki beharko dituzte. hoberi hori eguzki-energiaren aprobetxamendu-sistematarako kopuruei bakarrik aplikatuko zaie, inbertsioa derrigorrez ezarrita dagoena ez denean, alegia, Erakingintzaren Kode Teknikoan agindutakoa*

1. Se exime del pago del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras, la realización de cualquier construcción, instalación u obra de la que sean titulares el Estado, las Comunidades Autónomas, el Territorio Histórico de Bizkaia, o las Entidades locales que estando sujetas al mismo, vayan a ser directamente destinadas a carreteras, ferrocarriles, puertos, aeropuertos, obras hidráulicas, saneamiento de poblaciones y sus aguas residuales, aunque su gestión se lleve a cabo por organismos autónomos, tanto si se trata de obras de inversión nueva, como de conservación.

2. A las cuotas resultantes de la aplicación del tipo de gravamen señalado en el artículo 7 se le aplicará las siguientes bonificaciones:

a) Se bonificará con un 50% la promoción de viviendas sociales y de protección pública.

b) Gozarán de una bonificación del 95% las construcciones, instalaciones u obras que sean declaradas por el Pleno de la Corporación de especial interés o utilidad municipal por concurrir circunstancias sociales, culturales, histórico-artísticas o de fomento del empleo que justifiquen tal declaración.

La solicitud de bonificación se efectuará a instancia de parte en la que se señale las circunstancias que justifiquen la declaración por el Pleno de la Corporación de especial interés o utilidad municipal. Una vez declarada ésta se procederá a su aplicación.

3. Gozarán de una bonificación del 95 % las construcciones, instalaciones u obras en las que se incorporen sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía solar.

La bonificación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores que dispongan de la correspondiente homologación de la Administración competente. Esta bonificación será aplicable, exclusivamente, sobre las cantidades destinadas a sistemas de aprovechamiento de la energía solar y cuya



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA  
ERMUA HIRIKO UDALA

## Ordenanza Fiscal nº 4 Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras

### 4. Ordenantza Fiskala Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga

gainditzen den kasuetan.

*Hobariaren eskatzaileak bereizita aurkeztuko ditu agiriak: batetik EKTek derrigorrez agintzen dituen instalazioei eta horien aurrekontuari dagozkienak, eta hobekuntza moduan jarrito diren instalazio eta horien aurrekontuenak bestetik*

#### VIII. KUDEAKETA

##### 10. ARTIKULUA

*Nahitaezko lizentzia eman denean edo adierazpen arduratsua edo aurretiko komunikazioa aurkeztu direnean edo, nahitaezko lizentzia oraindik eskatu, eman edo ukatu gabe, eraikuntza, instalazioa edo obra egiteari ekin zaionean, behin behineko likidazio bat egingo da kontura, interesdunek aurkeztutako aurrekontuan oinarrituta oinarri zergagarria ezarriz, beti ere, dagokion kidego ofizialak oniritzia eman badu oniritzia ematea nahitaezko baldintza denean.*

##### 11. ARTIKULUA

*Lizentziaren eskabidea aurkeztu eta gero proiektua aldatu edo zabaltzen bada, Udalari jakinarazi egin behar zaio eta aurrekontu berria edo eraldatua aurkeztu behar zaio, baita, egoki denean, aldakuntza edo zabalkuntzaren planoak eta memoria ere. Behin-behineko beste likidazio bat egingo da, aldatutako aurrekontuaren arabera, jatorrizko aurrekontua gainditzen duen zenbatekoan.*

##### 12. ARTIKULUA

*1. Benetan egin diren eraikuntzak, instalazioak edo obrak eta horien benetako kostua kontuan hartuta, udal administrazioak, bidezko administrazio egiaztapena eginda, aldatu egingo du, bidezkoa denean, zerga oinarria, behin betiko likidazioa eginez, eta egoki den*

HOJA 22. ORRIA

inversión no sea obligatoria ,es decir, la inversión que exceda de lo establecido por el Código Técnico de las Edificaciones

El solicitante de la bonificación deberá aportar documentación por separado en la que se indiquen las instalaciones a las que obliga el CTE y su presupuesto, y las instalaciones que se implantarán como mejora y su presupuesto

#### VIII. GESTIÓN

##### ARTÍCULO 10

Quando se conceda la licencia preceptiva o se presente la declaración responsable o la comunicación previa o cuando, no habiéndose solicitado, concedido o denegado aun dicha licencia preceptiva, se inicie la construcción, instalación u obra, se practicará una liquidación provisional a cuenta, determinándose la base imponible, en función del presupuesto presentado por los interesados, siempre que el mismo hubiera sido visado por el Colegio Oficial correspondiente cuando ello constituya un requisito preceptivo.

##### ARTÍCULO 11

Si después de formulada la solicitud de licencia se modificase o ampliase el proyecto, deberá ponerse en conocimiento del Ayuntamiento acompañando el nuevo presupuesto o el reformado, y, en su caso, planos y memoria de la modificación o ampliación, practicándose una nueva liquidación provisional a tenor del presupuesto modificado en la cuantía que exceda del primitivo.

##### ARTÍCULO 12

1. A la vista de las construcciones, instalaciones u obras efectivamente realizadas y del coste real efectivo de las mismas, la administración municipal, mediante la oportuna comprobación administrativa modificará, en su caso, la base imponible, practicando la

*kopurua eskatuko dio subjektu pasiboari edo, hala gertatuz gero, dagokion kopurua itzuli.*

*2. Aurreko atalean xedatutakoaren ondoreetarako, obra amaitu edo behin-behinean jaso eta hurrengo hilabetean, amaieraren edo behin-behineko jasoketaren adierazpena aurkeztuko da, eta obra zuzentzen duen adituaren ziurtagiria erantsiko zaio, haren lanbide-elkargoak ikusonetsita, ahal bada, eta ziurtagiri horren bidez egiaztatuko da obren guztirako kostua.*

### **13. ARTIKULUA**

*1. Zergaren likidazioaren ondoreetarako, administrazioaren isiltasun positiboaren bidez emateen diren lizentzien ondoreak beren beregi ematen diren lizentzienak eurak izango dira.*

*2. Udal administrazioak higiezin jabeen burutzapen-agindua ematen dienean higiezin segurtasun, osasungarritasun eta itxurari buruzko baldintzak betetzeko behar diren obrak egin ditzaten, agindu horren ondoreak hirigintzako lizentziarenak eurak izango dira. Beraz, jabeek ez dute lizentziarik eskatu beharko Udalak agindutako obra burutzeko. Dena dela, obrarengatik egoki diren zergak ordaindu beharko dituzte.*

### **14. ARTIKULUA**

*Udalak autoliquidazio araubidean eskatu ahal izango du zerga hau.*

### **IX. AZKEN XEDAPENA**

*Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga araupetu duen zerga ordenantza honek 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango du indarra, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2018ko abenduaren 28ko 279. alean argitaratu eta gero, eta indarrean iraungo du harik eta hura aldarazi edo indargabetzea erabakitzen den arte.*

correspondiente liquidación definitiva y exigiendo del sujeto pasivo o reintegrándole, en su caso, la cantidad que corresponda.

2. A efectos de lo dispuesto en el apartado anterior, dentro del mes siguiente a la terminación de la obra o recepción provisional de la misma, se presentará declaración de esta circunstancia, acompañada de certificación de quien ejerza la dirección facultativa de la obra, visada por el Colegio Profesional correspondiente, cuando sea viable, por la que se certifique el coste total de las obras.

### **ARTÍCULO 13**

1. A efectos de la liquidación del impuesto, las licencias otorgadas por aplicación del silencio administrativo positivo tendrá el mismo efecto que el otorgamiento expreso de licencias.

2. Las órdenes de ejecución que dictare la administración municipal a fin de exigir a las personas propietarias de inmuebles la realización de obras necesarias para mantener aquéllos en condiciones de seguridad, salubridad y ornato público, producirán el mismo efecto que la licencia urbanística. En consecuencia, no será necesario solicitar nueva licencia para la realización de la obra cuya ejecución se haya ordenado, sin perjuicio de que la misma será objeto de la correspondiente exacción tributaria.

### **ARTÍCULO 14**

El Ayuntamiento podrá exigir este impuesto en régimen de autoliquidación.

### **IX. DISPOSICIÓN FINAL**

La presente Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras empezará a regir el día 1 de enero de 2019, una vez aprobada definitivamente y publicada en el Boletín Oficial de Bizkaia nº 249 de fecha 28 de diciembre de 2018 y seguirá en vigor hasta tanto se acuerde su modificación o derogación.